

FRATERNITÉS OUVRIÈRES-KO GILBERT: “PERMAKULTURA PARTITZEA DA: HOBE ZABORRA JATEA ELKARREKIN, BAKARKA ‘BIO’ BAINO”

1.800 metro koadroko paradisu bat gainbehera etorritako hiri industrialean hormigoiz inguratua, fruitu baratze bat obrero xeheek antolatua, lurgintzako aditu gehienen aholkuen kontrara, lurrik oparoena sortzea lortu duen Eden txit emankorra... Pikardiak, Flandriak eta Valoniak topo egiten duten Mouscronen daukagu zain Fraternités Ouvrières ortu obreroa, nahiz eta azaroaren 13tik falta den Gilbert Cardon lider zaharra, sindikalista permakultorea.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

1 969an jende txiroenen hezkuntza landu nahian Josine eta Gilbert Cardon senar-emazteek sortu zuten Fraternités Ouvrières elkar-tea (“Obreroen Senidetasuna” edo “Obreroen Anaidia”) Belgikako Mouscron herrian, txirrinuzaleek ezaguna duten Frantziako Roubaixen ondoan. CGTko sindikalista bikoteak laster edukiko zuen esku bete lan, eta 1970eko hamarkadan siderurgiako fabriken birmoldaketa basatiak kaleratutako langileei proposatu jardueren artean nagusitu zen baratzea.

Ez nolanhiko baratzea, ordea. Cardontarrek elkarteari lagatuko etxe ondo-ko baratzean dena izango zen naturala... gauza bitxia *bio* eta *ekologikoa* lau jakitunen kontua baizik ez zen garai haieran. Begiak irekiarazi zizkien haurren elikagai pozoituez Belgikan gertatutako eskandalu batek. Baina, gainera, sortutako elikagai, landare eta haziek izan behar zuten edonork pagatzeko bezain merkeak. Gilberti entzun zaion moduan, “aberatsak etor daitezke nahi badute, baina hemengo *bio*-a ez da haientzat”.

Europar *permakultura* edo *oihan jan-garria* kontzeptuak entzun aurretik ari dira horretan Fraternités Ouvrièresen, nahastuz zuhaitz, zuhaixka, barazki, etxeko animalia txiki, putzuetako izaki... 40 urteren buruan, zientoka bisitari erakartzen dituen Eden bat dago Mouscronen Karlos V. Enperadorea karrikako 58an.

Benjamin Hennot zinegileak *La jungle étroite* (“Oihan Estua”, ikustea merezi duen bideoa) deitu dion baratzeak 1.800 metrotan pilatzen ditu 2.000 inguru zuhaitz eta zuhaixka eta 4.000tik gora barazki mota. 2.000 arbola eta zuhaixketan badira 1.300 barietate ezberdin: 395 sagarrondo 312 klasetakoak, 242 mardariondo 160 barietatetakoak. Zientoka fruitu txiki, masusta, mugurdi, mahatsondo... Oihan txiki sarriak –lerroen artean pertsona bat doi-doi pasatzeko bezain estu landatuak– sortutako mikro-klimak baimentzen die Belgikan bizirik irautea eta nekez amestu daitekeen zenbait arbolak fruitu ematea.

Elkartearen atal funtsezkoetako bat *haziteka* da, 6.500 barazki eta barietate ezberdinen haziak biltzen dituen. Tomatetan, esaterako, 800 klase. Hazien bankuan dena elkarlanean ekoiztu, erosi eta ontziratzen da, birziklatutako ontzi eta kartoizko kutxa txikietan. “Jendea behar da hau dena zorrotzoetan jartzeko, bada bi hilabeteko lana eta boluntarioek egiten dute, bestela ezingo litzateke. Baina boluntarioena espres egindako hautua da, jendea irrikaz dago lanera etortzeko, sistema ziztu bizian dabil”. Gaur egun 2.000 dira bazkideak.

Nork bere orturako hazien bila bezala, Fraternités Ouvrièresera asko hurbiltzen dira urtean zehar antolatutako ikastaroetara. 2020a arte –COVID-19a dela eta, bilkurak eta bisitak eten behar izan dituzten artio– beste bazkide hizla-

rien artean Gilbert izan da izarra hainbat gaitan: elikadura burujabetasuna, arbo- len kimaketa eta txertaketa, lurzorua- ren prestaketa, pozoirik gabeko ortugintza, haziak nola bildu eta erabili...

GEREZIAK, GURETZAT... ETA TXORIENTZAT

Ikastaroetako batean hurbildu zen Mouscronera Benjamin Hennot zinema ikasi berritan eta liluratuta geratu zen: “Nekazaritza biologikoan interesatua nintzen eta Fraternités Ouvrières iruditu zitzaidan alor honetako eredurik desiragarriena, permakultura eta *bio* kontuak baino lehenagoko sustraiak ageri zituelako. Herri hezkuntzaren adibide ederre- netakoa da, hain zuzen ere, herrikoi jarraitu duelako, klase ertainaren estetika eta ideologiei aurre eginez. Fraternités Ouvrièresen jende xehea gustura egoten da, elite kulturalak berentzako sortu dituzten lekuen antipodetan dago”.

Zinegileak Cardontarren hitz eta ekintzetan nabaritzen ditu haien gazte denboran erregai izan zituzten sindikalismoaren eta Askapen teologiaren zantzuak. Gilberten hitzaldietan beti azaltzen da bizitza lagun urkoarekin partekatuz gozatzea, bizimodu xume bategen dakarren zoriona, jende txiroen halako ahalduntze edo adoretu nahi bat. “Jesusen Azken Afaria izan zitekeen Gilberten eruedetako bat, *Brunehaut* garagardo tragoen inguruan lagun artean eztabaidatuz. Baita Jesusek merkatariak



GILBERT CARDON

ILARA ESTUETAN LANDATURIKO
ARBOLAZ INGURATUTA.
MIKROKLIMA BEREZI HONETAN
FRUITUA EMATEN DU NORMALEAN
BELGIKAN EMANGO EZ LUKEEN
HAINBAT LANDAREK.
ARGAZKIA: BENJAMIN HENNOT.

Tenplotik kanporatu zitueneko hura ere. Ikusi dut Gilbert kargu hartzen hortzak luzatuta zetorrela antza eman zion bati: 'Adi'zak, sosak egin nahian baldin baha-bil, alferrik etorri haiz guregana'".

Sindikalista ere, berezia, antigoalekoa. "Batuetan langileak jakin behar du lana oker egiten, eta hori izaten da zailena. Zuk ikusi duzu ugazaba lankide mordoa kaleratzera doala, hain zuzen fabrika primeran dabilelako, eta proposatzen duzu: 'Hasi behar diagu tarteka okerrak egiten, produkzioa mantsotzen, bestela hau eta hura kalera zoazek'... eta hori oso zaila zaigu langileoi, hain daukagu barneratua lana ondo egin behar hori!"

Gilbert Cardon, ezkerreko sindikalista, industrial zaharra, baratzegintza naturalak eta Fukuokaren irakasgaiek umotua: "Barneratu dugu Mendebalde-

ko izpiritu ergel hau, ez dugu gerezion-dorik landatzen fruituak txoriek jango dizkigutelako. Permakulturarena alde-rantzizkoa da: landa dezagun bigarrena, zorte pitin batekin denok jango ditugu, txoriek eta guk. Nahiago dugu geuk ez jatea besterekin partitza baino! Hemen alderantzizkoa egin nahi dugu. Behin onartu duzunean zurea ondoko jendee-kin eta baita txoriekin ere banatzea, dena da errazagoa, nahikoa ekoiztuko duzu denentzat".

Eztenkada ederrak, elikagai garbien bila beren osasunaren ardura hutsez dabil-zenantzako ere: "Horiek heriotzare-kin obsesionatuta dabilta". Ez galdetu Gilberti bere osagarriaz, "zer uste duzu, geriatriko batera etorri zarela?". Osasuna, mediku gehienek praktikatzen du-tenaz harago, nagusiki buruan dagoela.

Alde horretatik, zer okerragorik jan eta edatea den ekintza oparora elikagaien elementu zerrenda baten kontsumo bihurtzea baino? Elikatzeak ospakizuna izan behar duela, komunio zoriontsu bat lagunekin eta naturarekin.

Gilbertek probokatzen segitu beharra sentitzen zuen, Fraternités Ouvrière- resera asko eta asko hurbiltzen zirelako -kronikatxo honen egileak noizbait egin nahiko lukeen moduan- fruitu bar- ratze eredugarri hartan extasian sar- tzera, Valoniako jungla txikian galtzera, lur aberats hura usaintzera... Baina ez, diosku Gilbert Cardonek, hau dena har- rrigarriki emankorra den hiri-ortu bat egitetik harago doan asmo baten osagai bat besterik ez da, zeren... "Je préfère bouffer de la merde ensemble que du bio tout seul!". ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f t